

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 26ko 85/2018 FORU DEKRETUA. Foru dekretu horren bidez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Erregelamendu Organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 26ko 6/2016 Foru Dekretua aldatzen da.**

**I**

2016ko urtarrilaren 26an onetsi zen Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2016 Foru Dekretua.

Ondoren, aipatutako foru dekretua birritan aldatuko da.

Alde batetik, maiatzaren 24an Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2016 Foru Dekretua onetsi zen. Honen bidez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Kontratazio Mahaia kendu zen.

Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 24/2018 Foru Dekretuaren bidez Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren eta haren menpeko bi atalen jardun-eremua berrantolatatu zen eta, ondorioz, aldatu egin zen atal horien izena.

**II**

Orain, Bizkaiko Foru Aldundian, mantenimenduari buruzko funtzioak Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailean zentralizatu nahi dira.

Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da sail honen erregelamendu organikoa aldatzea, funtzio honi dagokionez. Hau izango litzateke aldaketa hau onartzeko arrazoietako bat, kontuan hartuta erregelamenduzko ekimen hau ez dela aurreikusten 2018. urteko Arau- Planean.

**III**

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, txosten hauek egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Azkenik, 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat, genero-ikuspegia kontuan hartu da hura prestatu eta aplikatzean, eta 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatu da.

**IV**

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.14 artikulua arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.



Horrenbestez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko ekainaren 26ko bileran azterturik, honako hau

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.—*Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa aldatzea. Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko urtarrilaren 26ko 6/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori***

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoaren 16. artikulua honela idatzita geratuko da:

«Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren titularrak sailaren aholkularitza ekonomikoa eta juridikoa egiteko eginkizunak izango ditu, hain zuen ere, honako hauek:

- a) Aholku ematea sailari dagozkion lan, zerbitzu eta hornidura-kontratuei eta gainerrako administrazio-kontratuei buruz.
- b) Sailaren aurrekontuen aurreproiektua egiteko koordinaziolana egitea, eta Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean bitartekari izatea aurrekontu, fiskalizazio, ondare eta auditoretzaren arloetan.
- c) Sailari atxikitako langileen kudeaketa: prestakuntza, giza baliabideen planak, eta arriskuen prebentzioarekin eta lan-osasunarekin lotutako gaiak.
- d) Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari egin beharreko xedapen-proposamenak izapidetzea.
- e) Sailaren bulegoak kontserbatzeko eta mantentzeko neurriak hartzea, beste foru-sail batzuek arlo horretan duten eskumena ahaztu barik.
- f) Sailaren bulegoen mantenimenduarekin erlazioa duten lanak kudeatzeko, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailarekin bitartekari aritzea.
- g) Sailaren prozesuen inplementazioa eta kudeaketa.
- h) Aholkularitza eta ekonomiaren eta aurrekontuen kudeaketa, Sailaren diru-sarreen zein gastuen aurrekontuei dagokienez.
- i) Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea.
- j) Harremanak izatea Batzar Nagusiekin eta Arartekoarekin.
- k) Foru Aldundiaren Informatika Plana kudeatzea eta koordinatzea.»

AZKEN XEDAPENA

**Azken Xedapen Bakarra.—*Indarrean jartzea***

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko ekainaren 26an.

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

Enplegua, Gizarte Inklusioa  
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua,  
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ